

285/2020 DEKRETUA, 2020-04-01ekoa, alarma egoeran txakurren paseoak egiteko jarraibideak ezartzen dituena

Martxoaren 14ko Errege Dekretuak baimena ematen du txakurrak paseatzeko, halaber, txakur-parkeak eta parkeak oro har – ez badira haurren jolas-parkeak behintzat – ez dira sartzen jendearentzat itxita dauden ekipamenduen artean.

Animalien Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak hainbat jarraibide eta gomendio eman ditu konpainiako animaliei eta horien zaintzaileei buruz, koronabirusaren ondorioz ezarritako alarma egoera arautzen duen Errege Dekretuan ezarritakoa zehazteko. Besteak beste, Paseoak segurtasunez egiteko neurri hauek betetzea komeni da:

- Paseo laburrak egin, animalia-aren behar fisiologikoak egiteko beharrezkoa den denbora soilik.
- Saihestu kontaktua beste animaliekin eta pertsonekin.
- Garbikaria duen ur botila eraman, txakurrak txiza egin ondoren ingurua garbitzeko; txakur kaka jasotzeko poltsak eraman eta erabili.
- Jende gutxi dabilen uneetan atera.

Jarraibide horien aplikazioan hainbat gorabehera eta zalantza sortu dira Astigarragan, txakur jabeen aldetik nahiz udalaren aldetik, hala nola: behar fisiologikoak egiteko paseoak behar duen denbora, egunean zenbatetan, paseo hori egiteko eremua eta abar. Ibai parkearen eremuaren inguruan bereziki gorabehera ugari gertatu dira.

Txakur jabe askok zuzen bete dituzte jarraibide horiek, baina badira beste pertsona eta animaliekin kontaktua izan dutenak edo txakurraren aitzakiarekin paseo luzeak egin dituztenak.

Horrekin batera beste herritar askoren artean egonezina sortu du arau horiek ez betetzeak, gainerako herritarrei ezarritako itxialdi neurri (bereziki haurrei) zorrotzak ikusita.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da neurrien kontrol eta zaintza lanerako udalak dituen baliabideak, bereziki eremu handiak edo bazterrekoak zaintzeko.

Hori dela eta, dekretu honen bidez udalak jarraibide horiek zehaztu nahi ditu, neurri horien helburua betetzeko. Neurri horien helburua bikoitza da: batetik, txakurren behar fisiologikoak asetzeko aukera eskaintzea eta, bestetik, beste animalia eta pertsonekin inolako kontakturik ez izatea.

Horrenbestez, 463/2020 Errege Dekretuak, alarma-egoera deklaratzeko duenak, 6. artikuluan xedatzen duenez administrazio bakoitzak bere zerbitzuen kudeaketa arruntean indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak gordeko dituela beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko; eta kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.

artikuluak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 43. artikulua ematen dizkidaten eskumenak

EBAZTEN DUT

Lehenik.- Alarma egoeran txakurren paseoak arautzeko honako jarraibideak ematea:

- Paseoaren iraupena izango da animalia behar fisiologikoak egiteko beharrezkoa den denbora soilik. Egunean gehienez 3 egin daitezke eta bakoitza gehienez 15 minutukoa.
- Txakurrak lotuta ibiliko dira, beti.
- Txakurrek ez dute inolako kontakturik izango elkarrekin eta beste pertsonekin.
- Jende gutxi dabilen uneetan atera behar da kalera txakurrarekin.
- Paseo hori egingo da txakur jabearen etxebizitzaren inguruan.
- Aiotzategi, Kontxa Etxeberria eta Urumea kaleko bizilagunek Ibai Parkean horretarako zehaztu den eremua erabili ahal izango dute. Eremua zehaztu da bazterreko eremuak kontrolatzea zaila delako eta orain arte arau-hausteak bazterreko eremuetan egin direlako; dekretu honen I. eranskinean zehazten da plano hori.
- Garbikaria duen ur botila eraman behar da, txakurrak txiza egin ondoren ingurua garbitzeko (asfaltoa bada); txakur kaka jasotzeko poltsak eraman eta erabili.

Bigarren.- Udaltzaingoari agintzea honako neurriak betetzeko:

- Herritarrek dekretu honetan ezarritako jarraibideak betetzen dituzuela zaintzea eta, horrela ez bada, dagozkion izapideak egitea.
- Ibai parkea ixtea dekretu honetako planoan ezarritako mugekin (beltzez inguratutako eremua da alarma egoeran txakurrekin ibili ahal ziateko eremua, Aiotzategi, Kontxa etxeberrria eta Urumea kaleko bizilagunentzat soilik), berehala, dekretua jaso eta egun berean.

Astigarragan, 2020ko apirilaren 1ean

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako alkatea



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

I. eranskina



Beltzez inguratutako eremua da alarma egoeran txakurrekin ibili ahal izateko eremua (Aiotzategi, Kontxa Etxeberria eta Urumea kaleko bizilagunentzat soilik)

La zona delimitada en negro queda está habilitada para los paseos con perros (sólo para las viviendas de las calles Aiotzategi, Kontxa Etxeberria y Urumea)